Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urtarrilaren 25a, astelehena — 14 — Lunes, a 25 de enero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LAZKAOKO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Udalbatzarrak, 2020ko urriaren 29an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion Udal Araudi Organikoaren aldaketari, zehazki artikulu berri bat sartuz Osoko Bilkuretan eta Tokiko Gobernu Batzarretan parte-hartze telematikoa egin ahal izateko.

Aldaketa hori hogeita hamar egun balioduneko epean publikoari erakusteko jarri zen, 2020ko azaroaren 12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatu aldaketa behin-betikoz onartutzat ematen da.

Berez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da Araudiaren testu osoa, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu arte eta hamabost egun balioduneko epea iragan arte ez dela indarrean sartuko aipatuz.

Administrazio-bidean behin-betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

### ONARTUTAKO ALDAKETA

*26. artikulua.*

Udalaren osoko bilkuretan eta tokiko gobernu batzarretan parte-hartze telematikoa egin ahal izatea aurreikusten da. Parte-hartze telematikoa egin ahal izango dute amatasunarengatik edo aitatasunarengatik bajan dauden zinegotziek nahiz gaixotasunarengatik edo osasun agintarien aginduz bilkurara fisikoki bertaratu ezin diren zinegotziek.

Parte-hartze telematikoa egin nahi duten zinegotziek, horretarako eskaera egin beharko dute idatziz, alkateari zuzenduta, eta eskaerari dagokion justifikazioa erantsi beharko diote. Eskaerari buruz dagokion bilkuraren presidentziak ebatziko du.

Lazkao, 2021eko urtarrilaren 5a.—Kepa Zubiarrain Erauskin, alkatea. (43)

## AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

*Anuncio*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el 29 de octubre de 2020, aprobó inicialmente la modificación del Reglamento Orgánico Municipal, introduciendo un nuevo artículo para posibilitar la participación telemática en los Plenos y en las Juntas de Gobierno Local.

La citada modificación quedó sometida a exposición pública durante treinta días hábiles, mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 12 de noviembre de 2020, y al no haber sido presentada reclamación o sugerencia alguna por parte de los interesados, la misma queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo del Reglamento, con señalamiento de que entrará en vigor en un plazo de quince días hábiles desde su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Ello no obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición y hasta su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

### MODIFICACIÓN APROBADA

*Artículo 26.*

Se prevé la posibilidad de participación telemática en los plenos y en las juntas de gobierno local. Se posibilita la participación telemática de los concejales en situación de baja por maternidad o paternidad así como la de los concejales en baja por enfermedad o imposibilidad de asistencia física por orden de las autoridades sanitarias.

Los concejales y los miembros de la junta de gobierno local, que deseen participar telemáticamente en un pleno o en una reunión de la junta de gobierno local, respectivamente, lo deberán solicitar mediante escrito dirigido al alcalde y acompañaran al mismo la correspondiente justificación. En relación a la solicitud resolverá la presidencia del órgano colegiado que corresponda.

Lazkao, a 5 de enero de 2021.—El alcalde, Kepa Zubiarrain Erauskin. (43)

EK\CV GAO-I-2021-00043

ERANSKINA

UDAL ARAUTEGI ORGANIKOA

OSOKO BILKURA

*1. artikulua.*

Osoko Bilkura gutxienez hilean behineko maiztasunez egingo da, hileko azken ostegunean, iluntzeko 8etan Udaletxeko Areto Nagusian izango da eta gai zerrenda 72 ordu aurretik jakinaraziko da.

*2. artikulua.*

Ezohiko bilkura. Edozein taldek edo presidenteak eskatu ahal izango du, deialdia eta dokumentazioa 4 egun aurretik adieraziz eta eskatzen denetik hasi eta hurrengo 15 egunen barruan egingo da.

*3. artikulua.*

presakako ezohiko bilkura. Aurkezpenaren egun berean bidaliko da dokumentazioa eta gai zerrenda eta hurrengo 2 lanegunen barruan egingo da. Edozein taldek eskatu ahal izango du baina Bozeramaileen Batzordea Osoko Bilkura baino lehen bilduko da eta puntua presakakoa den eta eztabaidatuko den erabakiko du.

*4. artikulua.*

Alkateak deialdiarekin batera bilerak izango duen Eguneko Gai Zerrenda landu ondoren bidaliko du. Bertan agertzen ez den akordiorik hartzerik ez da izango, Osoko Bilkurako gehiengoek presakako proposamenak kontsideratzen dituztenak izan ezik.

*5. artikulua.*

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera eguneko gai zerrenda eta akordiorako aurkezten diren proposamenen kopia bidaliko zaie Udalbatza partaide diren talde eta independiente guztiei.

Eguneko gai zerrendan dauden eta eztabaidako oinarri eta dagokionean bozketatuko diren gaien dokumentazio guztia Udalbatzako batzarkideen esku egongo da bertako Idazkaritzan deialdiaren egunetik aurrera.

Ondorioz, Udalbatzako edozein batzarkidek aztertu ahal izango du eta baita osatzen duten dokumentu konkretuen kopiak lortu ere.

*6. artikulua.*

Osoko Bilkuraren eraketa balioduna izateko, Udalbatzako batzarkide legezkoen heren baten asistentzia beharrezkoa da (gutxienez 4). Quorum hau bilera guztian zehar mantendu behar da. Presidentearen eta Udalbatzako Idazkariaren asistentzia edo legez ordezkatzen dituenena derrigorrezkoa izango da betiere.

*7. artikulua.*

Bi hizkuntzen erabilera garantizatzen da eta zinegotzi eta bertaratzen den jendearen ulermen egokirako beharrezkoak diren baliabideak ezarriko dira.

*8. artikulua.*

Aurreko bilkurako aktari dagokionean Udalbatzako batzarkideren batek oharpenen bat egin behar badu, dagozkion zuzenketak eztabaidatu eta erabakiko dira. Egongo ez balira, onartutzat joko da.

Inola ere ezin izango da hartutako erabakien zentzurik aldatu eta oker material eta gertatzezkoak zuritu ahal izango dira soilik.

Akta bakoitzean aurrekoaren irakurketa eta onartzea aipatzen direnean burututako zuzenketa eta oharpenak izendatuko dira.

ANEXO

REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL

PLENO DE LA CORPORACIÓN

*Artículo 1.*

El Pleno de la Corporación se celebrará con una periodicidad mínima de uno al mes, que coincidirá con el último jueves, a las 20 horas, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, comunicando el orden del día con 72 horas de antelación.

*Artículo 2.*

Pleno extraordinario. A solicitud de cualquiera de los grupos o del Presidente, con convocatoria y documentación con 4 días de antelación, se celebrará dentro de los 15 días de su petición.

*Artículo 3.*

Pleno extraordinario urgente. Se enviará el mismo día de la presentación, la documentación y el orden del día y se celebrará dentro de los 2 días hábiles. Podrá solicitarlo cualquier grupo pero la Junta de Portavoces se reunirá antes del Pleno y decidirá si el punto es urgente y se trata.

*Artículo 4.*

El Alcalde elabora y remite al Pleno, junto con la convocatoria, el Orden del Día por el que habrá de regirse la sesión. No podrá adoptarse acuerdo alguno que no figure incluido en el mismo, salvo aquellas propuestas que se consideren de urgencia por mayoría del Pleno de la Corporación.

*Artículo 5.*

Con la convocatoria del Pleno se facilitará el Orden del Día, y copia de las propuestas de acuerdo a todos los grupos o independientes que formen parte de la Corporación.

Toda la documentación de los asuntos incluidos en el Orden del Día que debe servir de base al debate y, en su caso, votación deberá estar a disposición de los miembros de la Corporación desde el mismo día de la convocatoria en la Secretaría de la misma.

Cualquier miembro de la Corporación podrá, en consecuencia, examinarla, e incluso, obtener copias de documentos concretos que la integran.

*Artículo 6.*

Para la válida constitución del Pleno, se requiere la asistencia de un tercio del número legal de miembros de la Corporación (mínimo de 4). Este quórum debe mantenerse durante toda la sesión. En todo caso, se requiere la asistencia del Presidente y del Secretario de la Corporación o de quienes legalmente les sustituyan.

*Artículo 7.*

Se garantizará la utilización de las dos lenguas y se pondrán los medios necesarios para el correcto entendimiento de los concejales y público asistente en ambos idiomas.

*Artículo 8.*

Si algún miembro de la Corporación tiene que formular alguna observación al Acta de la Sesión anterior, se debatirán y decidirán las rectificaciones que procedan. Si no las hubiere se considerará aprobada.

En ningún caso podrá modificarse el fondo de los acuerdos adoptados y sólo cabrá subsanar los meros errores materiales o de hecho.

Al reseñar, en cada Acta, la lectura y aprobación de la anterior se consignarán las observaciones y rectificaciones practicadas.

EK\CV GAO-I-2021-00043

*9. artikulua.*

Osoko Bilkuraren bilerak publikoak dira. Idazkaritza Orokorrak eta gutxienez 3 egun aurretik, hiritarren ezagutzan jarriko du bere izatea ohiko herriko informazio organo desberdinen bidez.

*10. artikulua.*

Idatziz eta bilera baino 24 ordu lehenago egiten duten bitartean, zinegotziek emendakin eta gehigarriak aurkezteko eskubidea izango dute. Osoko Bilkuraren bileran zehar ere aurkeztu ahal izango dira emendakin eta gehigarriak, aurrez bileraren behin behineko etenaldia egin ondoren.

*11. artikulua.*

Bozkaketa arrunta ohikoa izango da akordioak hartzeko. Ohikoak, zeinu konbentzionalen bidez adierazten diren onespen, ukapen edo abstentzioa dira.

*12. artikulua.*

Presidente edo edozein zinegotziren eskaeraren aurrean, funtzionario arduradunek, momentu guztietan, eztabaidatzen ari diren arazoaren legezkotasun edo legezkotasun ezari buruz aholkatuko dute.

*13. artikulua.*

Eguneko Gai Zerrendan eztabaidatzeko mozio eta puntuak Udalean ordezkatutako edozein alderdik aurkeztu ditzake 96 ordu aurretik.

*14. artikulua.*

Edozein hiritarrek idatziz eska dezake Udalbatzako Osoko Bilkuran hitz egitea eta Osoko Bilkurako Eguneko Gai Zerrendako gai batean interbentzio bakar bat izango du, galdera eta erreguetan egin nahi dituenen kalterik gabe. Eskari hau idatziz egin beharko da, gutxienez 8 ordu aurretik, Osoko Bilkurak, gehiengoz, une horretan eskatutako interbentzioa baimentzen duenean izan ezik.

*15. artikulua.*

Aktak, bileraren ondorengo 15 egun naturaletan bidaliko zaizkie alderdi politikoei.

GOBERNU BATZORDEA

*16. artikulua.*

Alkateak eta izendatutako zinegotziek osatuko dute. Halaber, gainontzeko zinegotzi-ordezkariek edo batzorde presidenteek parte hartu ahal izango dute beraien batzordeei dagokien gaietan.

*17. artikulua.*

Deialdia 72 ordu aurretik egingo da, bertako batzarkideek Eguneko Gai Zerrendan agertzen ez diren puntuak sartu ahal izango dituztelarik (presakakoak deklaratzen direnak).

*18. artikulua.*

Batzordeen maiztasuna 15 egunekoa izango da eta inoiz ez da 30 egunetik pasako.

*19. artikulua.*

Akordioen laburpena bozketen emaitzekin, baleude, iragarki oholean jarriko da 7 egunetara eta epe berean Udal taldeei Akta bidaliko zaie.

INFORMAZIO BATZORDEAK

*20. artikulua.*

Batzorde informatiboak, Gobernu Batzorde edo Osoko Bilkuran erabakiz jarriak izan behar diren gaien prestakuntza, azterketa eta informerako osatzen dira.

*Artículo 9.*

Las sesiones del Pleno son públicas. Por la Secretaría General, y al menos con 3 días de antelación, se pondrá en conocimiento de los vecinos su celebración a través de los distintos y habituales órganos de información locales.

*Artículo 10.*

Los concejales tendrán derecho a presentar enmiendas y adicciones a los dictámenes, siempre que lo hagan por escrito y con una antelación de 24 horas al comienzo de la sesión. También podrán presentarse enmiendas y adicciones en el transcurso de la celebración de las sesiones del Pleno, previa suspensión provisional, en su caso, de su celebración.

*Artículo 11.*

La votación normal será la ordinaria para la adopción de acuerdos. Son ordinarias las que se manifiestan por signos convencionales de asentimiento, disentimiento o abstención.

*Artículo 12.*

Los funcionarios responsables asesorarán en todo momento acerca de la legalidad o no de la cuestión que se trata a petición del Presidente o de cualquier concejal.

*Artículo 13.*

Las mociones o puntos a tratar en el Orden del Día los podrán presentar cualquier grupo político representado en el Ayuntamiento con 96 horas de antelación.

*Artículo 14.*

Cualquier vecino podrá solicitar el uso de la palabra en las sesiones del Pleno de la Corporación, por escrito, para una única intervención sobre materia puesta en el Orden del Día de la sesión del Pleno, sin perjuicio de las que quiera hacer en ruegos y preguntas. Tal petición deberá hacerse por escrito, con anticipación al menos de 8 horas, salvo que el Pleno acuerde por mayoría, autorizar la intervención solicitada en ese momento.

*Artículo 15.*

Las Actas se enviarán a los grupos políticos antes de los 15 días naturales después de celebrada la sesión.

COMISIÓN DE GOBIERNO

*Artículo 16.*

Estará formada por el Alcalde y concejales nombrados. Así mismo podrán participar el resto de concejales-delegados o presidentes de comisión en temas que afecten a sus comisiones.

*Artículo 17.*

La convocatoria se realizará con 72 horas de antelación pudiendo los miembros de la misma incluir puntos que no figuran en el Orden del Día (aquellos que se declaran de urgencia).

*Artículo 18.*

La periodicidad de las comisiones será de 15 días pero nunca excediéndose de los 30.

*Artículo 19.*

El extracto de los acuerdos se expondrá en el tablón de anuncios a los 7 días con el resultado de las votaciones, si las hubiere, y se remitirá el Acta en el mismo plazo a los grupos municipales.

COMISIONES INFORMATIVAS

*Artículo 20.*

Para la preparación, estudio e informe de los asuntos que preceptivamente han de ser sometidos a la Comisión de Gobierno o del Pleno, se constituyen las comisiones informativas.

EK\CV GAO-I-2021-00043

*21. artikulua.*

Herriko entitate eta hiritar guztientzat irekiak izango dira bilerak, ahoz parte har dezaketelarik baina botorik gabe. Baina bozkaketa bat egiterakoan, zinegotziak izan ala ez, alderdien ordezkariek egin ahal izango dute, talde bakoitzeko boto batekin.

*22. artikulua.*

Bileren maiztasuna batzorde bakoitzak ondo deritzona izango da eta presidenteak presakakoa delako edo alderdi politiko batek eskatu duelako derrigorrezkoa deritzonean.

*23. artikulua.*

Komenigarritzat hartzen da bere batzarkide guztien asistentzia erregularra.

*24. artikulua.*

Deialdiak Presidenteak egingo ditu gutxienez 24 ordu aurretik, Eguneko Gai Zerrenda bere kide eta eskatzen duten organismo, elkarte edo antolatutako taldeei bidaliz.

*25. artikulua.*

Bilera bakoitzeko akordioen laburpenak egingo dira eta bere batzarkideen artean zabaldu (1 talde bakoitzeko).

PARTE-HARTZE TELEMATIKOA KIDE ANITZEKO ORGANOETAN

*26. artikulua.*

Udal kide anitzeko organoetan parte-hartze telematikoa egin ahal izatea aurreikusten da. Parte-hartze telematikoa egin ahal izango dute amatasun edo aitatasunarengatik bajan dauden zinegotziek hala nola gaixotasunarengatik edo osasun agintarien aginduz bertaratu ezin duten zinegotziek.

Parte-hartze telematikoa egin nahi duten zinegotziek, horretarako eskaera egin beharko dute idatziz, alkateari zuzenduta, eta eskaerari idatzizko dagokion justifikazioa erantsi beharko diote. Eskaerari buruz osoko bilkuraren presidentziak ebatziko du.

BOZERAMAILEEN BATZORDEA

*27. artikulua.*

Bozeramaileen Batzordea, Udalbatzako Osoko Bilkuran ordezkaritza duen talde bakoitzekoez osatua egongo da eta Alkatea izango da buru.

Organo honek maila politikorik gorenenean informazio eta eztabaidako paper funtsezkoena du, eta baita Udalerrientzat edo udal ekintzentzat ondorio gehien duten gaietan parte hartzekoa ere.

Halaber, Osoko Bilkurako Eguneko Gai Zerrenda elaborazioarekin zerikusia duten arazoetan Alkatearekin lan egiteko ezartzen da.

ZINEGOTZIENA

*28. artikulua.*

Zinegotzi guztiek beharrezko deritzoten edozein motako informazio eta espediente lortu ahal izango dituzte dagokion funtzionarioaren bidez.

*29. artikulua.*

Egiten direnean, Alkatetzak bidalitako Ebazpenen zerrenda eta Udalaren Erregistroan aurkeztutako Errekurtsoak jaso.

*Artículo 21.*

Las reuniones serán abiertas a la participación de todos los vecinos y entidades de la localidad, pudiéndose intervenir con voz, pero sin voto. Pero a la hora de una votación podrán hacerlo los representantes de los partidos, sean o no concejales, con un voto por grupo.

*Artículo 22.*

Se establecerá la periodicidad de reunión que cada comisión crea conveniente, y cuando lo crea necesario su presidente por motivos de urgencia o lo solicite un grupo político.

*Artículo 23.*

Se estima conveniente la regularidad de asistencia de todos sus miembros.

*Artículo 24.*

Las convocatorias las realizará el Presidente con una antelación mínima de 24 horas facilitando el Orden del Día a sus miembros y a aquellos organismos, sociedades o grupos organizados que lo soliciten.

*Artículo 25.*

Se levantarán extractos de acuerdos de cada reunión y se distribuirán entre sus miembros (1 por grupo).

PARTICIPACIÓN TELEMÁTICA EN LOS ÓRGANOS COLEGIADOS

*Artículo 26.*

Se prevé la posibilidad de participación telemática en las reuniones de los órganos colegiados municipales. Se posibilita la participación telemática de los concejales en situación de baja por maternidad o paternidad así como la de los concejales en baja por enfermedad o imposibilidad de asistencia por orden de las autoridades sanitarias.

Los concejales que deseen participar telemáticamente en una reunión de un órgano colegiado del ayuntamiento, lo solicitarán mediante escrito dirigido al alcalde y acompañaran al mismo la correspondiente justificación asimismo por escrito. En relación a la solicitud resolverá la presidencia del órgano colegiado.

JUNTA DE PORTAVOCES

*Artículo 27.*

La Junta de Portavoces estará compuesta por los que sean de cada grupo con representación en el Pleno de la Corporación y será presidida por el Alcalde.

Este órgano tiene un papel fundamental de información y debate al más alto nivel político, así como, de intervención en aquellos temas de mayor transcendencia para el Municipio y la actividad municipal.

Asimismo, se establece para colaborar con el Alcalde en las cuestiones relacionadas con la elaboración del Orden del Día de los Plenos.

DE LOS CONCEJALES

*Artículo 28.*

Todos los concejales tendrán acceso directo, a través del funcionario correspondiente, a todo tipo de información y expedientes que estimen oportuno.

*Artículo 29.*

Recibir, cuando se produzcan, la relación de Decretos emitidos por Alcaldía y de los Recursos presentados ante el Registro del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2021-00043

HIRITARREN PARTAIDETZA

*30. artikulua.*

Udalbatzak bere aktibitateari buruzko informaziorik zabalena eskuratuko du eta hiritarren partaidetza propiziatuko du, partaidetza honek edonola ere Udal organoei dagokion erabaki hartze ahamenetan gutxietsi gabe.

*31. artikulua.*

Hiritar guztiek, Udal akordioen eta beren aurrekinen ziurtagiri egiaztagarri eta kopiak lortzeko eskubidea dute, hala nola artxibo eta erregistroak kontsultatzeko ere, guztia, Administrazio Prozedura Legearekin bat, Konstituzioko 105. artikulua Lege bidez garatzen ez den bitartean.

*32. artikulua.*

Adin nagusiko hiritar guztiek, Udal Organoetara interes pertsonal eta zuzenen onespena eskatuz jotzeaz gain, Udal konpetentziako gaiei buruzko akto edo erabakiak Udalari eskatzeko eskubidea dute.

*33. artikulua.*

Interesatuaren eskaria egiaztatzen den idatziak, izena, helbidea eta N.A.N. zenbakia adierazi beharko ditu eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da. Eskatzaileak beste baten izenean, edo beste kolektibo batzuenean ari denean, alegatzen duen ordezkapena egiaztatu egin beharko du.

*34. artikulua.*

Udal zerbitzuen funtzionamendu eta egituraren hobekuntzari edo edozein Udal Organoren aktibitatearen irregulartasun edo anomaliari dagozkien eskariak ofizioz tramitatuko dira, bere efektibitate osoa lortu ahal izateko dagokion espedientea hasiko delarik.

*35. artikulua.*

Eskaria egiten den Udal Organoa erabakitzeko inkonpetentea kontsideratzen bada, konpetente deritzonari bidaliko zaio eta eskatzaileari esango dio honela egina izan dela.

*36. artikulua.*

Edozein hiritarrek, Udal ondasun eta eskubideen defentsarako beharrezkoak diren akzioak burutzeko eskatu ahal izango dio Udal Administrazioari.

*37. artikulua.*

Udal Administrazioak, hiritarren interes orokor edo sektorialak defendatzeko elkarteen garapenak bultzatuko ditu, beren aktibitateei buruzko informaziorik zabalena emango du eta ahal den neurrian, Araudi honetako 29. artikuluan adierazitako moduan, aktibitateak burutzeko gai publikoen erabilera eta laguntza ekonomikoak.

*38.1 artikulua.*

Hiritarren interes orokor edo sektorialen defentsarako Elkarteei kausitutako eskubideak, Herri Elkarteen Udal Erregistroan inskribaturik daudenek bakarrik burutu ahal izango dituzte.

*38.2 artikulua.*

Erregistroaren helburua Udalari Udalerrian dagoen Elkarte kantitatea, beraien helburuak eta errepresentatibitatea jakinaraztea da, herri-elkarteen sustapenaren Udal politika egokia ahaltzearren.

PARTICIPACIÓN DE VECINOS

*Artículo 30.*

La Corporación facilitará la más amplia información sobre su actividad y propiciará la participación de los vecinos en la vida local, sin que esta participación pueda menoscabar la facultad de decisión que en todo caso corresponde a los órganos municipales.

*Artículo 31.*

Todos los vecinos tienen derecho a obtener copias y certificaciones acreditativas de los acuerdos municipales y sus antecedentes, así como a consultar los archivos y registros, todo ello, conforme a la Ley de Procedimiento Administrativo, en tanto no se desarrolle mediante Ley el artículo 105 de la Constitución.

*Artículo 32.*

Todos los vecinos mayores de edad, además de dirigirse ante los Órganos Municipales en petición del reconocimiento de los intereses personales y directos, tienen el derecho de elevar peticiones al Ayuntamiento en solicitud de actos o decisiones sobre materia de competencia municipal.

*Artículo 33.*

El escrito en el que se coteja la petición del interesado deberá incluir el nombre, domicilio y número de D.N.I., y será presentado el el Registro General del Ayuntamiento. Cuando el solicitante actúe en nombre de otra persona, o de otros colectivos, deberá acreditar la representación alegada.

*Artículo 34.*

Las peticiones que se refieran a la mejora de la estructura y funcionamiento de los servicios municipales o a la irregularidad o anormalidad en la actuación de cualquier Órgano Municipal, se tramitarán de oficio, instruyendo el correspondiente expediente para lograr su plena efectividad.

*Artículo 35.*

Si el Órgano Municipal ante el que se realiza la petición se considera incompetente para resolverla, la remitirá al que se considere competente y comunicará haberlo hecho así al peticionario.

*Artículo 36.*

Cualquier ciudadano podrá requerir a la Administración municipal el ejercicio de las acciones necesarias para la defensa de los bienes y derechos municipales.

*Artículo 37.*

La Administración municipal favorecerá el desarrollo de las Asociaciones para la defensa de los intereses generales o sectoriales de los vecinos, les facilitará la más amplia información sobre sus actividades y dentro de sus posibilidades, el uso de los medios públicos y ayudas económicas para la realización de sus actividades en los términos expresados en el artículo 29 de este Reglamento.

*Artículo 38.1.*

Los derechos reconocidos a las asociaciones para la defensa de los intereses generales o sectoriales de los vecinos sólo serán ejercitables por aquellas que se encuentran inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones Vecinales.

*Artículo 38.2.*

El Registro tiene por objeto permitir al Ayuntamiento conocer el número de entidades existentes en el Municipio, sus fines y su representatividad, a los efectos de posibilitar una correcta política municipal de fomento del asociacionismo vecinal.

EK\CV GAO-I-2021-00043

*38.3 artikulua.*

Udalerriko hiritarren interes orokor edo sektorialen defentsa, sustapena edo hobekuntza helburutzat duten guzti haiek lortu ahal izango dute Herri Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea, eta bereziki, auzotarren elkarteak, guraso elkarteak, kultur, kirol, aisialdi, gazte, sindikal, enpresari profesional eta antzeko edozein elkartek.

*38.4 artikulua.*

Erregistroa Korporazioko Idazkaritza Orokorrean eramango da eta bere datuak publikoak izango dira. Inskribaketak interesa duten elkarteek eskatuta egingo dira eta ondorengo datu hauek aurkeztu beharko dituzte:

— Elkartearen estatutuak edo funtzionamendu araudia, izango balu.

— Elkarteen Erregistro Orokorreko eta beste zenbait Erregistro Publikoko inskribapen zenbakia, izango balu.

— Zuzendaritza edo ordezkaritza kargua dutenen izenak.

— Helbide soziala, izango balu.

Inskribapenerako eskaria egiten denetik hasi eta 15 eguneko epean, hasera batean bateratu ez den dokumentazioaren beharragatik geldiarazten ez bada behintzat, Udalak Elkarteari inskribapen zenbakia jakinaraziko dio eta une horretatik aurrera, efektu guztietarako altan dagoela kontsideratuko da.

Inskribatutako Elkarteek, egiten diren aldaketen berri egiten direnetik hilabeteko epean Erregistroari jakinarazi beharko dizkie. Eginbehar hauek ez betetzeak Udalak Elkarteari Erregistroan baja ematea ekar dezake.

ORDAINKETAK

*39. artikulua.*

Udalbatzak Udal Aurrekontuaren kargu zenbateko bat izendatuko du Udal funtzioetan ari diren bitartean bere batzarkideen ordainketa eta kalte-ordainetarako.

BATZORDE INFORMATIBOETAKO PRESIDENTEENA

*40. artikulua.*

Alkatetzako Zinegotzi-Ordezkariak izango dira bere egite eremu arloko batzordea presidituz, ondorengo eskurantzak dagozkiolarik:

a) Batzorde informatiboaren deialdia egin eta presiditzea.

b) Bere ordezkaritza arloan Alkatea eta Udala ordezkatzea.

c) Udalbatzaren Osoko Bilkura eta Gobernu Batzordeko Eguneko Gai Zerrendan sartzeko gaiak proposatzea.

d) Udalbatzaren Osoko Bilkura eta Gobernu Batzordeak erabakitakoak dagokion arlorako intereseko gaiei buruz Batzordea informatzea.

e) Gobernu Batzorde eta Informazio Batzordeari aktuazio irizpideak proposatzea.

f) Gobernu Batzorde eta Informazio Batzordeari hainbat organismoen aurrean egindako gestio eta berauek bidalitako dokumentuen berri ematea.

g) Elkar informatu eta koordinaziorako gainontzeko Presidenteekin bilerak eta kontaktuak izatea.

h) Ordezkari aktuazio area barruan, zehazten den kantitatean gastuak prestatu eta kontuak egitea.

*Artículo 38.3.*

Podrán obtener la inscripción en el Registro Municipal de Asociaciones Vecinales todas aquellas cuyo objeto sea la defensa, fomento o mejora de los intereses generales o sectoriales de los vecinos del Municipio, y en particular, las asociaciones de vecinos de un barrio, las de padres de alumnos, las entidades culturales, deportivas, recreativas, juveniles, sindicales, empresariales, profesionales y cualesquiera otras similares.

*Artículo 38.4.*

El Registro se llevará en la Secretaria General de la Corporación y sus datos serán públicos. Las inscripciones se realizarán a solicitud de las asociaciones interesadas, que habrán de aportar los siguientes datos:

— Estatutos de la asociación o normativa de funcionamiento, si los tiene.

— N.º de inscripción en el Registro General de Asociaciones y en otros Registros Públicos, si los tiene.

— Nombre de las personas que ocupen cargos directivos o responsables.

— Domicilio social, si lo tienen.

En el plazo de 15 días desde la solicitud de la inscripción, y salvo que ésta hubiera de interrumpirse por la necesidad de aportar documentación no incluida inicialmente, el Ayuntamiento notificará a la Asociación en n.º de inscripción y a partir de ese momento se considerará de alta a todos los efectos.

Las Asociaciones inscritas están obligadas a notificar al Registro toda modificación de los datos dentro del mes siguiente al que se produzcan. El incumplimiento de estas obligaciones dará lugar a que el Ayuntamiento pueda dar de baja a la Asociación en el Registro.

RETRIBUCIONES

*Artículo 39.*

La Corporación asignará con cargo al Presupuesto Municipal una cantidad para hacer frente a las retribuciones e indemnizaciones de sus miembros en el ejercicio de sus funciones municipales.

DE LOS PRESIDENTES DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS

*Artículo 40.*

Serán Concejales-Delegados de la Alcaldía, presidiendo la comisión del área de su campo de actuación, correspondiéndose las siguientes atribuciones:

a) Convocar y presidir las comisiones informativas.

b) Representar al Alcalde y Ayuntamiento en su área de delegación.

c) Proponer la inclusión de asuntos en el Orden del Día del Pleno de la Corporación y de la Comisión de Gobierno.

d) Informar a la comisión de cuantos asuntos de interés para el área de que se trate, sean resueltos por el Pleno de la Corporación y por la Comisión de Gobierno.

e) Proponer criterios de actuación a la Comisión de Gobierno y a la comisión informativa.

f) Informar a la Comisión de Gobierno y a la comisión informativa de las gestiones realizadas ante diversos organismos y de la documentación remitida por éstos.

g) Mantener reuniones y contactos con los demás Presidentes para información mutua y coordinación.

h) Disponer gastos en la cuantía que se fije y rendir cuentas, todo ello dentro de su área de actuación delegada.

EK\CV GAO-I-2021-00043